

KODEA / CODIGO: 3217

EKINBIDE BURUA - ERTZAINZAREN ZERBITZUA HOBETZEKO BULEGOA

LANPOSTUAREN ZEHATZAPEN LABURRA / DESCRIPCION RESUMIDA DEL PUESTO

Polizia-zerbitzuen funtzionamendua hobetzeko edozein herritarrek, ordenamendu juridikoak ezarritako baldintzei eta mugei lotuta, aurkezten dituen ekimenak aztertzea, baita polizia-zerbitzua hobetzeko egokitzat hartzen dituen neurriak har daitezen proposatzea ere. Horren guztiaren berri eman beharko zaio Segurtasunaren Euskal Batzordeari.

EGINKIZUNEN AZALPEN ZEHATZA / DESCRIPCION DETALLADA DE LAS TAREAS

Herritarrek kexak, iruzkinak, hobetzeko iradokizunak eta abar egitea erraztuko duten mekanismoak antolatzea.

Polizia-zerbitzuaren kalitatearen irizpide erabakitzaileak identifikatzea.

Ertzaintzaren erabiltzaileen ekimenak, iradokizunak, kexak eta iruzkinak aztertzea.

Ekimenen azterketetatik, iradokizunetatik eta abarretatik eratorritakoak identifikatzea eta Segurtasun Saileko erakundeetara bideratzea.

Joera-ildoei eta ekimenen azpiko kausei buruzko azterlanak eta ikerketak aztertzea.

Herritarren ekimenen kudeaketa ebaluatzea.

Polizia-zerbitzuen hobekuntza zehatzak proposatzea.

Prebentziozko jarduketa-irizpideak identifikatzea joera-ildoen eta azpiko kausen arabera.

Aldizkako eta egoeraren arabeko txostenak eta jardueren urteko memoria egitea Segurtasunaren Euskal Batzorderako.

Hartutako neurrien ondorioz ekimenetan izandako aldaketak egiaztatzea. Baliozkotzea.

Arloko buru izateagatik dagozkion eginkizun guztiak.